

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2026KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEA XEDE DUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak eskatuta landu da, bat etorrita Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 20. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumena baliatuta. Testu bategin hori martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu zuen; hemendik aurrera, Berdintasunerako Legea.

Txostenaren helburua da egiaztatzea behar bezala aplikatzen direla bai Berdintasunerako Legearen 20. artikulua, bai, halaber, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko Erabakia —Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onetsi ziren—, eta, horrekin batera, hobekuntza-proposamenak egitea.

Eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da.

Beraz, xedapen arauemaile orokorra da, eta generoaren arabera zer eragin duen ebaluatu behar da, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik. Horri begira, generoaren araberako eraginari buruzko txostena eman du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

Egiaztatu dugu bete egin direla Berdintasunerako Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, zenbait ohar eta proposamen egin ditugu.

Berdintasunerako Legean eta generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideetan aurreikusitako izapide formalak bete direla egiaztatu ondoren, generoaren araberako eraginaren txostena egiteko prozesuari eta edukiari dagokienez, zenbait gogoeta eta proposamen egiten dira.

Aipatutako lege-aurreproiektuaren genero-eraginari buruzko txostenaren edukia baloratzeko premisa gisa, prozesuari berari, egungo egoerari eta txostena egiteko metodologiari buruzko zenbait gogoeta egingo ditugu, garrantzitsutzat jotzen ditugunak:

Lehenik eta behin, Europako Parlamentuko Ikerketa Zerbitzuak genero-ikuspegidun aurrekontuei buruz egin berri duen azterlana (2025eko otsaila) aipatu nahi genuke. Azterlanaren izenburua da *Genero-ikuspegidun aurrekontuak egungo egoera eta aukerak Europako Parlamentuaren 10. Legegintzaldirako*, eta zera dio: "Genero-ikuspegidun aurrekontua tresna praktikoa da, eta aurrekontu-ziklo osoan sistematikoki aplikatu daiteke, baliabideak modu ekitatiboan banatuko direla eta gastua genero-berdintasunaren aldekoa izango dela bermatzeko. Aurrekontuek herritarrei ahalik eta balio handiena emango dietela bermatzeaz gain, genero-ikuspegia duen aurrekontuak efizientziarekin, gardentasunarekin eta kontuak ematearekin lotutako beste helburu politiko batzuk babesten ditu". Azterlan horretan bertan, EB mailan genero-ikuspegia duten aurrekontuei dagokienez, planteatzen da azken 20 urteetan bultzada-aldiak izan direla, eta, ondoren, geldialdiak. Azterlanaren arabera, dinamika hori bat dator emakumeen eta gizonen berdintasunaren beste eremu batzuetan gertatutakoarekin, askotan denbora behar izan baita politikak eta praktikak integratzeko eta horiei eusteko. Hala ere, ikerketek erakusten dutenez, badago arrisku bat: genero-ikuspegia duten aurrekontuak diskurtsoan islatzen dira, baina ez dira erabat aplikatzen. Egoera horren aurrean, aipatutako azterlanak aipatzen du nazioarteko erakundeek, hala nola ELGAk eta Europako Kontseiluak, iradokitzen dutela aurrekontuak genero-ikuspegiarekin eraginkortasunez aplikatzeko hiru oinarri izan behar dituela: (1) **esparru estrategiko sendoa**; (2) **aplikatzeko tresna eraginkorrak**, eta (3) **ingurune egokia eta mesedegarria**.

Premisa horrekin, joan den ekainaren 10ean, Gobernu Kontseiluak EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU OROKORRETAN GENERO- IKUSPEGIA TXERTATZEKO ESTRATEGIA onartu zuen. Ekimen horren azken helburua, egungo lege-aginduei erantzunez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jardura guztiak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen murrizketan eragin positiboa izango duela bermatzea da, eta, horrela, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago bat lortzen lagunduko du. Horretarako, EAEko sektore publikoaren aurrekontu-programa guztiak, politika publikoen isla, genero-ikuspegiarekin diseinatu behar dira.

Politika publikoen zikloa prozesu dinamikoa denez, etapa bakoitza besteekin atzera elikatzen da, eta azken ebaluazioak ziklo berri bat eragin dezake arazoak eta helburuak definitzean edo birdefinitzean. Estrategia horren oinarria da genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea diagnostikoaren, plangintzaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren faseetan. Modu horretan lan egiteak funtsezko informazioa emango dio euskal sektore publikoari, eta horrek aukera emango du, hurrengo ekitaldietan, gure gizartean emakumeen eta gizonen egoerak edo posizioak eragindako diskriminazio-egoerak mantentzen edo areagotzen dituzten partidak berregituratzeko.

Estrategiak, aldi berean, helburu hori betetzeko beharrezkoak diren baldintza batzuk ezartzen ditu:

- 1. Aurrekontu Orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko estrategia bat diseinatzeko eta abian jartzeko konpromiso politiko esplizitua, eta, horren ondorioz, baliabideak esleitzea.*
- 2. Lidergo politiko aktiboa Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail, erakunde autonomo, partzuergo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko eta fundazio guztietan.*
- 3. Berdintasunaren arloan adituak diren eta posizio organiko eta harreman funtzional egokia duten behar beste langileek hornitutako egitura, bai eta bere helburuak betetzeko behar duen aurrekontu-zuzkidura ere.*
- 4. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren politika orokorreko estrategia genero-ikuspegitik aztertzea.*
- 5. Sail bakoitzaren sektore-politikari buruzko hausnarketa orokorra egitea, eta genero-ikuspegia sistematikoki txertatzea politika publikoen eta horien jarduera zehatzen diseinuan, inplementazioan eta jarraipenean.*
- 6. Epe ertain eta luzerako plangintza, genero-arrakalak murrizteko benetako emaitzak lortzera bideratutako asmo handiko helburuak zehaztu ahal izateko.*
- 7. Genero-eragina ikuspegi kritiko batetik ikusarazteko konpromisoa, politika publikoetara bideratutako baliabideak berdintasun-helburuetara bideratzea ahalbidetuko duten hobekuntzak lortzeko.*

8. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko funtsezko langileak (teknikariak eta politikariak) trebatzea, sektoreko gaien, sareko lanaren, eta, komenigarritzat jotzen den guztietan, laguntza teknikoaren arabera berariazko ikastaroen bidez.

Estrategia horren esparruan egindako diagnostikoak agerian utzi duenez, erakundeen borondatea gorabehera, genero-ikuspegia eraginkortasunez aplikatzeko ezinbestekoa da kultura- eta antolaketa-eraldaketa sakona, eta estrategia hori ildo horretan apustu sendoa dela uste dugu. Horregatik, Ogasun eta Finantza Sailaren lidergoak garrantzi berezia hartzen du, ez bakarrik aurreko ekitaldietan genero-eraginari buruzko 2026ko txostena egiteko Jaurkitutako sail guztiekin lankidetzan hasitako lan-prozedura inplementatzeko, baita epe luzerako estrategia hori baliatzea eta ezartzea bultzatzeko ere, genero-ikuspegidun aurrekontu-prozesuan aurrera egiteko beharrezko aldaketak ekar ditzan.

Era berean, azpimarratu behar da sail eta erakunde autonomoetako berdintasunerako administrazio-unitateek zeregin garrantzitsua dutela abian jarritako barneko lan-prozesuetan, bai eta sailen arteko beharrezko koordinazioan eta administrazio-prozedura arrunta betetzean duten laguntza, aholkularitza eta inplikazioa ere. Helburu hori betetzeko, eta prozedura arrunt honen barruan, sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiek, EITB taldeak, Osakidetzak, SPRIk, GCRk, URAk eta IHOBek txosten bat igorri diote Ogasun eta Finantza Sailari, hurrengo ekitaldirako jarduera-lehentasunak azaltzeko. Gainera, aurrekoetan bezala, eta denboran zehar jarraipena egiteko asmoz, "Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak" eta "Soldata-arrakalaren" aurka ezarri beharreko jarduerak laburbiltzeko eskatu zaie. Gainera, sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiek bete dituzte beren aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertzeko P-Gen inprimakiak.

Genero-eraginari buruzko txostenari dagokionez, izapidetze-denborek ez dute uzten nahi adina denbora txostenaren edukia sakon aztertzeko; hala ere, hona hemen zenbait gogoeta:

EAEko diagnostiko sozioekonomikoari dagokionez, txostenean adierazten denez :

- Desberdintasunen kausak identifikatzea ezinbestekoa da, politika publikoak erantzun koordinatuak, integralak eta eraginkorrak emateko, ondorio negatiboak neutralizatzeko eta berdintasunaren bidean aurrera egiteko, inor atzean utzi gabe. Kausak identifikatzea funtsezko urratsa bada ere,

garrantzitsua da genero-eraginaren azterketa sistematikoa ikuspegi interseksionaletik egitea.

- EAEko Genero Berdintasunaren Indizearen azken datuari erreparatzen badiogu, Euskadi Luxenburgoren eta Finlandiaren artean kokatzen baitu, (hurrenez hurren, zazpigarren eta zortzigarren postuan dauden herrialdeen artean), berdintasun-maila handienak osasunarekin, diruarekin eta denborarekin lotutako alderdietan daude, eta zertxobait txikiagoa da botereari edo ezagutzari dagokionez. Desberdintasuna gehien hautematen den dimentsioa botereari dagokiona da, batez ere alderdi ekonomikoan hauteman da, azpidimentsio bat osatzen baitu, zeinaren indizea 52,2 puntukoa baita, eta bigarrenik gizarte-boterean hauteman da, biak ala biak erabateko berdintasunetik oso urrun.

Atal horretan, zenbait esparrutan (osasuna, hezkuntza, ordaindutako lana, zaintza -lana, aniztasuna eta bizikidetzatza, emakumeen aurkako indarkeria, pobrezia eta gizarte-bazterketa, eta erabakiak hartzeko parte-hartzea) dauden genero-arrakala nagusiak laburbiltzen dira. Atal horretan emandako emaitzak abiapuntua dira aurrekontu-programek EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan duten eragina ezagutzeko, bai eta egiten ari diren jarduketan bidez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomeno estruktural eta unibertsal hori zuzentzeko zer neurritan eragin daitekeen eta neurriak har daitezkeen jakiteko ere.

Gastuen azterketari dagokionez:

EAEko Administrazio Orokorraren eta haren mendeko erakundeen zerbitzura dauden langileei dagokienez, eta enplegu publikoa finkatzeko ezohiko prozesuaren ondoren, beharrezkoa da Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoa eguneratzea. Jarduera hori 2026an egingo du Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailak. Era berean, txostenak ohartarazten du plantillaren azterketa egin ondoren agerian geratu dela genero-desberdintasun esanguratsuak daudela euskal sektore publikoko kolektiboen artean. Desberdintasun horiek funtzio publikoak aukeratzean edo esleitzean genero-eredu estrukturalak islatzen dituzte, eta faktore historikoen, kulturalen edo sarbide-faktoreen ondorio izan daitezke. Plantillaren behin-behinekotasunari dagokionez, aipatutako finkatze-prozesuak emakumeen lan-egonkortasuna hobetzea ahalbidetu du, kontuan hartu behar baita

emakumeak plantillaren % 70 direla. Behin-behinekotasunaren murrizketari buruzko datu horiek positiboak izan arren, ezin dugu ahaztu, eta hala jasotzen du eraginari buruzko txosten honek, haien ordezkaritza murriztu egiten dela ordainsari-maila altuenetan eta zuzendaritza-postuetan. Maila altuenetan, gizonak % 70 baino gehiago dira, eta emakumeak, berriz, presentzia handiagoa dute maila baxuetan. Desberdintasun horiek adierazten dute politika aktiboak behar direla genero-berdintasuna sustatzeko erantzukizuneko lanpostuetarako sarbidean eta soldata-egituran. Telelanari dagokionez, joan den irailaren 16ko Gobernu Kontseiluak Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen mahai sektorialetan hartutako Erabakia onartu zuen, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako telelanaren eta lan ez-presentzialaren lan-modalitateak arautzen ditu. Erabaki horren arabera, langile publikoek, behin betikoek zein aldi baterakoek, astean 2 egunetan egin ahal izango dute lan modu ez-presentzialean, betiere zerbitzu publikoa behar bezala ematen dela bermatzen bada. Berrikuntza nagusia da, bestalde, langile teknikoek ez ezik, administrari laguntzaileek, administrariak eta buruzagitzek ere baliatu ahal izango dutela telelana, baldin eta lanpostuko zereginak telelangarri gisa katalogatuta badaude.

Azkenik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako funtzioak dituzten teknikariei dagokienez, Jaurkitzearen Kontseiluak, joan den urriaren 14an egindako bileran, egungo legegintzaldian sortu berri diren sailak hornitzeko lau plaza sortzea erabaki zuen. Neurri horrekin, sail guztiek berdintasunerako administrazio-unitate bat izango dute 2026an, bai eta IVAP, HABE, Arkaute eta Osalan erakunde autonomoetako administrazio-unitateak eta Lanbide, Osakidetza eta ETS erakundeak ere. EITBren eta URAREN kasuan, bietako batek ere ez du berdintasunerako administrazio-unitaterik, nahiz eta indarreko araudian hala ezarrita dagoen. EITBk plantillan generoan aditua den pertsona bat dauka, zuzendaritza-taldekoa bera. URAk, bestalde, berdintasunerako antolaketa-egitura badu, Agentzian berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko prestakuntza espezializatua duen pertsona batek eta lantalde parekide eta diziplina anitzeko batek osatua. Lantalde horrek ("Berdintasun Taldea"), arduradunarekin batera, erakundearen aldaketa gidatzen du.

Sailei eta haien gastu-aurrekontu programei dagokienez, EAEko sektore publikoaren aurrekontu bateratua 18.038.205.545 eurokoa da. Horietatik gastuaren % 23,2

Osakidetzan inbertitzen da, % 17,9 Hezkuntzan, % 6,7 Lanbiden, % 6 Osasunean eta % 4,4 Segurtasunean. Genero-eraginari buruzko txostena egiteko, sailen, haien erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu bateratua hartu da oinarri, bai eta Osakidetza, Lanbide, EITB Taldea, URA eta SPRI zuzenbide pribatuko erakunde publikoena eta IHOBE sozietate publikoarena, txosteneko 3. taulan ikus daitekeenez.

Aurrekontua gobernu-politikaren isla ekonomiko eta finantzarioa da, eta, beraz, Jaurlaritzaren eta Jaurlaritzak jarduten duen sektore-eremuen helburuei lotuta dago nahitaez.

- Aztertutako aurrekontuaren % 60 inguru honako hauetan biltzen da:
 - o Osakidetza eta Osasun Saila (% 37,7).
 - o Hezkuntza Saila eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila: % 27,6.
- Emakunderi zuzendutako aurrekontua zertxobait handiagoa da 2025eko aurrekoaren aldean, aztertutako aurrekontuaren % 0,1 baita, eta EAEko sektore publikoaren aurrekontu bateratuaren % 0,04.

Txosten honetan aurrekontu bateratu osoaren % 77 aztertzen da. Ondorengo faserako geratzen da Administrazio Orokorraren eta gainerako erakunde, fundazio eta sozietate publikoen 00 eta 51-99 atalak aztertzea, baita diru-sarrerak aztertzea ere.

Generoaren araberako egokitasunari dagokionez, txostenak nabarmentzen du aztertutako aurrekontuaren % 99,72 generoarekiko egokitzea jo dela; horietatik % 85,72 garrantzi handikotzat, % 11,2 garrantzi ertainekotzat eta gainerako % 2,8 generoarekiko garrantzia txikikotzat.

Aurreko urteetan bezala, generoarekiko ez-egokiak dira aurrekontu-programak hauek: Industria Segurtasuna, Energia eta Meatzeen Politika eta Garapena, eta Trenbide Sare Berria EAEn- Kudeaketa-kredituak. Ihobek, halaber, uste du bere aurrekontua ez dela generoarekiko egokia; aztertutako gainerako erakundeek, berriz, ez dute hala pentsatzen.

Genero-ikuspegiaren ezarpen-mailari eta ekintza positiboen inplementazioari erreparatuz gero, txosteneko datuek hau adierazten digute:

- GENERO-IKUSPEGIAREKIN PLANIFIKATUTAKO JARDUERAK EDO
GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA DISEINU-PROZESUAN
DAUDENAK:

Genero-ikuspegia maila desberdinetan integratuz planifikatutako eta sailek jakinarazitako aurrekontua aztertutakoaren % 9,4 da. Txostenaren arabera, hori horrela da aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzeko egun indarrean dagoen metodologian ez dielako erakundeei (Osakidetza, Lanbide, EITB, URA, SPRI eta IHOBE) hausnarketa hori egiteko eskatzen. Beharrezkotzat jotzen dute alde aurretik irizpide teknikoetan eta prestakuntzan sakontzea.

Genero-ikuspegiarekin diseinatutako aurrekontua nabarmen murriztu da; izan ere, aurreko ekitaldiko txostenean adierazi zenez, Lanbideren aurrekontua jarduera guztien % 50 zen. Lanbide erakunde autonomoa izan da orain arte, baina orain zuzenbide publikoko erakunde pribatua denez, taulatik kanpo geratu da.

- BERDINTASUNERAKO EKINTZA POSITIBOAK:

Guztira, 14 sailek, erakunde autonomo batek eta zuzenbide publikoko bi erakunde pribatuk berdintasuneko ekintza positiboak inplementatu dituzte hainbat jardueratan. Ildo horretan, berdintasun benetako eta eraginkorra, emakumeen ahalduntzea eta egiturazko desberdintasunak konpontzea sustatzen duten neurriak zeharka ezarri direla ikusten da. Ekintza horiek genero-justiziarekiko konpromiso instituzionala indartzen dute, eta aukera ematen dute berdintasunezko eta indarkeria matxistarik gabeko gizarte baterantz aurrera egiteko.

Soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko 2026ko aurrekontuetan identifikatukoari dagokionez, emandako datuen arabera, EAEko sektore publikoaren aurrekontu batera tuaren % 0.74 da, eta aztertutako sailen, haien erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontuaren % 0,96. Ehunekoak behera egin du 2025eko aurrekontuarekiko, baina kopuru absolutuetan 25 milioi igo da.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko 2026ko aurrekontuetan identifikatutakoari dagokionez, aurrekontu hori hainbat sail eta erakunderen artean banatzen da. Hauek dira aurrekontu-esleipen handiena duten sailak:

- Segurtasuna: guztizkoaren % 43.
- Justizia eta Giza Eskubideak: % 39.
- Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa: % 14 .

Horrek erakusten du inbertsio handia egin dela biktimei babesa, justizia eta zuzeneko arreta emateko, eta hori koherentea da erantzun integraleko estrategiarekin. Prebentzio-ikuspegia eta ikuspegi-hezitzailea duten sailak hauek dira:

- Emakunde sentsibilizazio-, prestakuntza- eta prebentzio-ekintzen buru da, eta Beldur Barik programa eta gizarte-erakundeentzako dirulaguntzak nabarmendu ditu.
- Hezkuntza, Kultura, Osasuna eta Gazteria, prestakuntza, sentsibilizazio eta detekzio goiztiarreko funtsezko jarduerak barne hartzen dituzte .

Bestalde, kalteberatasun bereziko egoeran dauden emakumeei, haurrei eta nerabeei, eta mutilazio genitalaren biktima edo migratzaile diren emakumeei zuzendutako jarduerak aurreikusten dira, eta horrek ikuspegi intersektzionala islatzen du. Hala, emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko jasotako aurrekontu-partide k EAEko sektore publikoaren aurrekontu bateratuaren % 0,19 eta aztertutakoaren % 0,24 egiten dute. Emakumeek indarkeria matxistarik gabe bizi daitezen lortzeko jardueretarako identifikatutako guztizko aurrekontua 8 milioi handitu da 2025eko aurrekontuekiko. Hala ere, txostenak azaltzen duenez, aurrekontu hori ez da benetakoa , eta dagoeneko ez da I. kapituluko (Langileak) gastua kontuan hartu, 2026an egitea aurreikusten diren jarduera asko barne hartzen baititu.

Bukatzeko, eraginari buruzko txostenak sail bakoitzerako aurrekontu-programen azterketa xehatua egiten du. Berrir diogu, ez dugula behar besteko denborarik izan, eta, beraz, , ezin izan dugula azterketa zehatza behar bezala egin.

Eta azkenik, 2026an aurrekontuen inguruan egingo den lanaren esparruan, komeni da prozesu hori egiteko denboren hausnarketa eta azterketa ere egitea, prozesu horretan parte hartzen dugun alderdi guztiok behar besteko denbora izan dezagun eskatutako izapideak eta/edo prozedurak egiteko.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urriaren 27an